

Felipe Handiaren heriotzean euskarazko koplak nafarroa, 1666

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

Honores funebres que hizo el Real Consexo de Navarra a la memoria del Rey N. S.

Philipp IV el grande., Pamplona, 1666.

Argitaratzen den bertsio honen iturria: K. Mitxelena, Textos arcaicos Vascos, Madrid, 1960, 136-137 or.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Felipe Handiaren heriotzean euskarazko koplak nafarroa, 1666

Emen, lur guti onetan,
Dago Erreguea sarturic,
Baña ez mundu gustian
Haren fama estaliric.
Daguien negar Guizonac
Philiperen heriotzean;
Haren obrac dirade onac
Itsasoan ta lurrean.
Vrtu beitez viotçac
Negarrez faltagatic,
Eta gure beguiac
Veude iturriac eguinic.
Auts, Erregue, viurtu zara,
Sustentaria ceruen:
Nora (ai nizaz!) joanen gara?
Ceruac daude erortzen.

O Nafarroa leala!
orai bear du acabatu:
Onequin vici izan da,
Onequin ere hil bear du.
Ilumbetan dago emen
Orai mundu gustia,
Cegatic ilundu den
Haren iguzqui andia.
O Cometa, guizonen
Lotzazale bortiza!
Ioan aitzin Turcoaren
Buru cruela guenzera!
Pheliperi certaco,
Viotz amoltsu zuenac,
Berzec baño gueiago
Vici merezi zuenac?
Dolore andi eta damù
Daucana viotzean,
Nafarroac ezarri dù
Erreguearen obian.
Phelipec mundua utsi dù;
Ceruac dago. Verezat
Vrte aniz vici izan dù,

Baña guti gurezat.